

GIZARTE ONGIZATEA ETA BERDINTASUNA / Garapenaren Aldeko Lankidetzak

Iruñeko Udalak Garapenaren aldeko lankidetzako Udal Programa dauka, 1996tik aurrera, herrialde pobreenetako edo *Hegoko Herrialdeetako* herriei eta komunitateei laguntze aldera.

Hona hemen programaren **helburuak**, zeinek, aldi berean, jarduketarildoak zehazten baitituzte:

- Garapenari eta nazioarteko elkartasunari laguntza emateko udal-politika garatzea.
- Herri eta komunitate pobreetako egoeraren berri ematea, eta zer ahalegin egiten dituzten egoera hori gainditzeko (sentsibilizazioa); Iruñean garapenaren aldeko hezkuntza garatzea; eta, Hegoaldeko gizon-emakumeen garapenerako programak egiten laguntzea.
- Hondamendi naturalek edo giza jatorriko gatazkek eragindako giza larrialdietako egoeretatik edo laster gertatu beharreko arrisku batetik datozen ondorioak arintzeko jarduketak sustatzea.
- Egiten diren jarduketak ebaluatzeko lerro bat mantentzea, programaren berriazko zati bat bezala.
- Komunikazio eta partaidetzarako bideak sustatzea, Iruñeko Udalaren eta Iruñean garapenaren aldeko lankidetzaren eta nazioarteko elkartasunaren esparruan, etengabe lan egiten duten GGKEen, taldeen eta erakundeen artean.

1.557.187 euroko aurrekontua bideratu zen hasieran jarduketa horiek egiteko (2011n, aldiz, 2.011.548 euro), Iruñeko Udalaren aurrekontuaren % 0,78. Horrek esan nahi du lortu egin dela Nazio Batuek garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzara bideratzea gomendatzen duten gutxieneko ehunekoa. Horrenbestez, hiriko auzokide bakoitzeko 7,88 euroko ekarpena egin da.

Garapenaren Aldeko Lankidetzako Udal Programaren baitan **best deialdi** daude Iruñean finkatuak egon eta jarduerak egiten dituzten **Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeei** (GGKE) diru-laguntzak banatzeko. Bi deialdi beste herrialdeetan lankidetzak proiektuak egiteko dira; beste bi, Iruñean bertan egin

beharreko sentsibilizazio- eta hezkuntza-proiektuak gauzatzeko, eta bosgarrena berriz, giza larrialdietarako jarduketetara bideratua dago.

Garapenaren Aldeko Lankidetzaren urteroko Proiektuen 2012ko deialdian, Udalak 32 proiektu lagundu zituen diruz 20 herrialdetan; zenbatekoak, guztira, 754.988 euro jo zuen. Geografia-eremuei begira, 11 proiektu Afrikakoak ziren (diru-laguntzaren % 37); beste 11 (% 33) Hego Ameriketakoak, eta gainerako 9ak (% 27), Erdialdeko Amerikan, Mexikon eta Kariben. Proiektuen % 76 giza-izaerako azpiegiturari lotuta zeuden. Hainbat urtetako deialdia 2006an hasi zen eta gehienez 3 urteko iraupena duten proiektuei zuzendua dago, Hegoaldeko Toki Entitateek bulizaturiko toki garapenerako ekimenak sustatzea xede hartuta. 2012an, lau proiektuekin zegoen konpromisoa bete eta diruz lagundu ziren, Dominikar Errepublikan, Perun, Guatemalan eta El Salvadorren.

Iruñeko Udalak garapenaren aldeko sentsibilizazio- eta hezkuntza-arloko 16 proiektu lagundu zituen diruz, 78.000 eurotan. Proiektuen artean hainbat gairi buruzko ekimenak zeuden: bidezko merkataritza, giza eskubideak, genero-berdintasuna, kulturartekotasuna edo elkartasunerako prestakuntza. Unean uneko jarduketetarako deialdian, 10 proiektuari eman zitzaizkien diru-laguntza, eta guztira 9.600 euro banatu ziren. Proiektuak, besteak beste, argazki-lantegi bat, buletin digital bat edota elkartasunezko kontakizunen liburu bat izan ziren.

Azkenik, giza larrialdietarako jarduketaren deialdiaren xedea da hondamendi naturalek edota giza jatorriko gatazkek eragiten dituzten ondorioak arintzea, eta 78.000 euroko aurrekontua izan zuen. 7 proiektu lagundu ziren diruz, ondokoei lotuak: elikadura-laguntza, larrialdiko elikadura esku-hartzeak, gaixotasunak prebenitu eta desagerraraztea, kolera kasu, eta oinarriko azpiegiturak berreraikitzea. Laguntza hainbat herrialdek jaso zuten, hala nola Haitik, Peruk, El Salvadorrek, bai eta saharar errefuxiatuen kanpamentuek ere.






2001az geroztik urtero bezala, 2012an Iruñeko Udalak **lankidetzaz-hitzarmen** bat sinatu zuen Garapenaren Aldeko Gobernu Kanpoko Erakundearen Nafarroako Koordinakundearekin, Koordinakundeak berak hirian duen **Argibide Bulegoa** mantentzen laguntzeko. Udalak 30.400 euro eman zituen, hau da, bulegoaren kostearen % 87,1. Bulego horretan zuzeneko arreta egiten da, hamabostean behingo aldizkari bat argitaratzen da, entitateen direktorio bat eta GKEen jardura-agenda bat mantentzen da, bai eta www.congdnabarra.org webgunea ere, zeinak 2012an 31.445 bisita izan zituen.

Urtean barrena, udal-programa honek sare-lana egiteari eutsi zion lankidetzaz Deszentralizatuaren arloko beste erakunde batzuekin batera, hainbat lan-batzorderen bidez. 168 bilera egin ziren pertsona,

talde eta GGKEekin, Hegoaldeko 11 entitateri edo pertsonari egin zitzaion harrera eta horrez gain, Garapenaren aldeko lankidetzaren Udal Kontseilurako partaidetza bideratu zen, zeina legealdi honetarako eratu baitzen, 2012ko irailaren 18an.

Hasierako aurrekontuaren % 94,8 gauzatu zen.

LAN-ILDOA	Zk.	2012ko gauzapena (€)	Ehunekoa (%)
SENTSIBILIZAZIOA	30	130.000	9,6
Diru-laguntzen deialdia:			
Unean uneko jarduketak	10	9.600	0,7
Diru-laguntzen deialdia:			
Proiektuak	19	90.000	6,7
Lankidetzaz Hitzarmena (CONGDN)	1	30.400	2,3
GARAPENA	42	1.142.988	84,6
Urteko diru-laguntzen deialdia	32	754.988	55,9
Zenbait Urtetarako Diru-laguntzen deialdia (2010-2012)	2	160.000	11,8
Zenbait Urtetarako Diru-laguntzen deialdia (2011-2013)	2	180.000	13,3
Lankidetzarako Toki Funtza (NUKF)	6	48.000	3,6
GIZA LARRIALDIETARAKO LAGUNTZA.	7	78.000	5,8
Diru-laguntzen deialdia:			
Giza larrialdia	7	78.000	5,8
PMCDren JARDUKETEN			
GUZTIZKO PARTZIALA	79	1.350.988	91,6/100
PMCDren JARDUNAREN			
GUZTIZKO PARTZIALA		124.548	8,4
GUZTIRA GAUZATUA		1.475.536	100




1. Grafikoa

Jarduketa-ildoei dagokienez, garapenerako proiektuek jaso zuten dirurik gehien (% 84,6 - % 77,5, jarduketetara bideratutako diruak edo Programaren diru guztiak kontuan hartzen diren). Garapenaren aldeko sentsibilizazio- eta hezkuntza-jarduketetara eta giza larrialdietarako jarduketetara % 9,6 - % 8,8 eta % 5,8 - % 5,3 bideratu zen, hurrenez hurren.

2. Grafikoa

Udal Programak lagundutako garapenaren aldeko lankidetzeta-jarduketan **geografia-banaketari** dagokionez, hiru eremu handi daude (Erdialdeko Amerika-Mexiko-Karibe, Afrika eta Hego Amerika).



Guztira, udal finantzaketaren % 88,6 jaso zuten (% 98, ez badira kontuan hartzen Iruñean egindako sentsibilizazio-proiektuak).

23 **herrialdek** jaso zuten Iruñeko Udalaren finantzaketa; guztien artean, Peru eta El Salvador nabarmentzen dira, diru-hartzaile nagusiak baitira (udal-funts guztien % 13 eta % 12,9). Alde handira daude Guatemala (% 9,7), Dominikar Errepublika (% 8,3), Kongoko Errepublika Demokratikoa (% 6,4), sahararrak (% 5) eta Kolonbia (% 4,8). 7 herrialde horietako bakoitzak gutxienez ere 60.000 euro jaso zituen eta, guztien artean, programak dauzkan diruen % 60 biltzen dute.

3. Grafikoa

Jarduera-sektoreei dagokienez, herritar onuradunen oinarritzko beharrak asetzera bideratutako proiektuak bultzatu ditu programak argi eta garbi, bai eta jarduketan izaera integrala nabarmentzen duten proiektuak zein erakunde zibilak indartzea eta genero-gaiak lantzea xede zuten proiektuak ere. 2012an, hainbat sektorek jaso zuten udal-finantzaketaren ehunekorik handiena. Hauek dira: Gobernu eta gizarte zibila (% 29,3), Osasuna (% 13,5), Sentsibilizazioa lparaldean (% 9,6), Hezkuntza (% 8,5) eta Nekazaritza eta abeltzaintza (% 8,4).

